

Joxerra Garzia

◆ IDAZLEA



DANI BLANCO

Bizikletan apatx(e)

ASPALDIKO PARTEZ, eta ustezko eguraldi txarrari esker, telebistaz bizpahiru western ikusteko aukera izan dut egunotan, txar amorratuak denak. Ezin hobeak, alegia, kanpoan giro ez denean geldikako bizikletan eguneroko kirol saioa etxean gozo-gozo egiteko. Ibilian, tximistaren pare pasatzen da bizikletaz ordu bete. Geldian, ordea, eternitate eta erdi pasatxo ematen du.

Gaur egun, hainbeste telebista katerekin, noiznahi dago, direnak direlarik ere eguna eta ordua, non edo han western bat aurkitzeko aukera. Zorionez, asko B sailekoak eskaintzen dituzte, paisaiak ez ezik aktoreak eta sentimentuak ere kartoikara izaten diren horietakoak. Asko eta askotarikoak dira horrelako filmen abantailak, baina hemen bi bakarrik aipatuko ditut, ari garenaren harira ez datozenak bazter utzita.

Batetik, hasi eta ordu betera harrapatuta ere, lehen fotogramatik igartzten diozu zer gertatuko den (nor hilko den, nor norekin ezkonduko...); albisteetakoaren aldean, mundu txukun eta ordenatua da filmotakoa, eta gainera txintxoek irabazten dute beti. Bestetik, dena hain kartoikara izanik, filma bera ari zaizu taigabe belarri ertzera gogoratzen fikzioa, itxura hutsa dela dena; horregatik dira eramangarriak, besteak beste, elkarriketak, ukabilkadak eta tiroketak: ez dutelako benetakoak iruditzeke asmorik batere.

Telebistari begira ordu beteko saioa egiten baduzu, ordea, bes-telako solas, eraso eta tiro batzuk ere jasan beharko dituzu, eta horiek bai, horiek beldurgarriak dira, bizikletari "arre" esan eta handik lauhazka bizian alde egiteko grina sortzeko modukoak. Tamalez, gaiztoaren zaldia baino geldoago da etxe barruko bizikleta: hari arre eta arren aritu arren, hantxe geldituko da, zir-

kinik egin gabe, eta zuk osorik irentsi beharko duzu "publizitate etenaldia" esaten dioten tiro festa.

Aurreko batean, 26 tiro kontatu nituen, filmaren etenaldi bakar batean. Bat saihestu arren, hurrena nondik etorriko zaizun ezin inola ere asmatu. Garbi dago zu zaituztela jomuga, zuketa zurian lotsagabe ari zaizkizu eta: zugana, zurekin, zuretzat, zure alde. Batzuetan, hala ere, zurekin ari ez balira bezala diharduten gazte txitxi-trinko batzuk agertzen dira, gizon zein emakume, gorputz jarrera grinatsu eta imintzio likitsak eginez, lurrin izen lurrintsuak xuxurlatzen dituztela euren artean, ingeles edo frantses maneratsuan, higuigarri. Asko dira horrelakoak: lurrinez lurrin eguberriak kirats bihurtzeko lain. Gainerakoetan, denetik dago: ume txikientzako kolonia ura, turroi magikoa, jostailu sofistikatuak, zimurren kontrako ukendua, hortzorde miresgarriro itsaskorra...

Eta, nola ez, hirugarren mundukoentzat laguntza eske larriak. Diodan etenean, hiru. Ez elkarren segidan, baizik eta lurrin-jostailu-turroi-hortzordeekin nahasi, harmonia latzean. Gainaz gaineko aberaskeria eta azpiaz azpiko miseria, dena bat. Miseriaren ikur diren umeek izen propioa dute (John, Henry...).

Hilean 10 edo 12 euro eskatzen zaigu haientzat hiru iragarkiotako bakoitzean; Henryren kasuan, lehen urtebetetzea azkena ere izan ez dezan. Kolore Batuak eskaini ohi zituen markak Amets Batuak eskaintzen dizkigu orain. Ez dut uste John eta Henry bezalako haur goseen ezkur-ametsak dituenik gogoan, gurea bezalako herri asen gezur-ametsak baizik.

Amaitu da iragarkien tartea, eta eskerrak: gauzak beren onera datoz berriz, eta zu bazoaz, gezurrezko ametsen pedalei eraginez, geldi, gezurrezko *Happy End* baterantz gozo-gozo. ■



Antton Olariaga

